<p>ikusten bada, egoera juridiko partikular bat kaltetzen duten bat-bateko gertaerek argi eta garbi erakusten badute emandako ekintza bidegabea dela edo prozeduraren izapidean interesatuen defentsarik eza gertatu bada. Baliogabetzea beti ofizioz hasiko da.</p> <p>Errenta-Dirubilketa sailak proposatuta, Alkatetza Dekretuaren bidez baliogabetuko dira lehen aipatutako akatsak dituzten zerga-likidazioak edo prezio publikoenak eta aldizkako ordainagiriak.</p> <p>Era berean, Diruzainak premiamenduzko probidentzia baliogabetu ahal izango du Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean aurreikusitako baldintzen arabera, akatsak antzemateagatik.</p> <p>37.Artikulua.- Berraztertze errekurtsoa</p> <p>1. Zerga-administrazioak emandako egintzen aurka, erreklamazio ekonomiko-administratiboa egin badaiteke, berraztertze errekurtsoa jarri ahal izango da.</p> <p>Tokiko zergak eta zuzenbide publikoko gainerako sarrerak aplikatzearen eta horien eraginkortasunaren ekintzen kontra berraztertze errekurtsoa jartzeak ez du etengo aurkaratutako egintza egitea.</p> <p>2. Berraztertze errekurtsoa, hala badagokio, erreklamazio ekonomiko-administratiboa egin aurretik jarri beharko da. Interesdunak berraztertze errekurtsoa jartzen badu, ezin izango du erreklamazio ekonomiko-administratiboa sustatu, harik eta errekurtsoa berariaz ebatzi arte edo administrazio-isiltasunez ezetsizat jo arte.</p>	<p>ordenamiento jurídico, cuando circunstancias sobrevenidas que afecten a una situación jurídica particular pongan de manifiesto la improcedencia del acto dictado, o cuando en la tramitación del procedimiento se haya producido indefensión en las mismas. La revocación se iniciará siempre de oficio.</p> <p>A propuesta del departamento de Rentas-Recaudación se revocarán, mediante Decreto de la Alcaldía, aquellas liquidaciones tributarias o de precios públicos y recibos periódicos que adolezcan de los errores antes mencionados.</p> <p>Así mismo, el Tesorero o la Tesorera puede revocar la Providencia de Premio en los términos previstos en la Norma Foral General Tributaria, por haberse detectado errores.</p> <p>Artículo 37.- Recurso de reposición</p> <p>1. Los actos dictados por la Administración tributaria susceptibles de reclamación económico-administrativa podrán ser objeto de recurso de reposición.</p> <p>La interposición del recurso de reposición contra los actos sobre la aplicación y efectividad de los tributos locales y restantes ingresos de derecho público, no suspenderá la ejecución del acto impugnado.</p> <p>2. El recurso de reposición deberá interponerse, en su caso, con carácter previo a la reclamación económico-administrativa. Si la persona interesada interpusiera el recurso de reposición no podrá promover la reclamación económico-administrativa hasta que el recurso se haya resuelto de forma expresa o hasta que pueda considerarlo desestimado por silencio administrativo</p>
---	--

<p>3. Berraztertzeke errekurtsua jartzeko epea hilabetekoa izango da, berrikusteko eskatzen den egintza berariaz jakinarazi eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, edo zergadunen edo ordaintzera behartuta daudenen erroldak edo matrikulak jendaurrean erakusteko aldia amaitu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita. Era berean, aldizkako epemuga eta jakinarazpen kolektiboa duten zorren kasuan, errekurtsua borondatezko ordainketa-aldian ere jarri ahal izango da, edo hilabeteko epean, ordainketa amaitu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.</p> <p>4. Berraztertzeke errekurtsuaren ebazpenaren aurka ezin da berriro errekurtsu hori jarri.</p> <p>38.Artikulua.- Premiamenduzko probidentziaren aurkako errekurtsuak</p> <p>Premiamenduzko probidentziaren aurka, bakarrik ondoko kontrakotasun arrazoiak izango dira onargarriak:</p> <p>a) Zorra erabat amaitzea, edo ordainketa exijitzeko eskubidea preskribitzea.</p> <p>b) Zorra geroratu, zatikatu edo konpentsatzeko eskatzea borondatezko epean, eta zerga-bilketako prozedura etenda geratzeko beste arrazoi batzuk.</p> <p>c) Likidazioa ez jakinaraztea.</p> <p>d) Likidazioa deuseztatzea.</p> <p>e) Akatsa izatea premiamenduzko probidentziaren edukian, zorduna edo zor premiatua identifikatzea eragozten duena.</p> <p>Premiamenduzko probidentziaren aurkako errekurtsuak Udal diruzainari aurkezten zaizkio, eta hark ebatzi beharko ditu dagozkion txostenak</p>	<p>3. El recurso de reposición se interpondrá dentro del plazo de un mes contado desde el día siguiente al de la notificación expresa del acto cuya revisión se solicita o al de finalización del período de exposición pública de los correspondientes padrones o matrículas de contribuyentes u obligadas/os al pago. Así mismo, en el caso de deudas de vencimiento periódico y notificación colectiva, el recurso podrá interponerse también durante el periodo voluntario de pago o durante el plazo de un mes contado a partir del día siguiente al de finalización de aquél.</p> <p>4. Contra la resolución de un recurso de reposición no puede interponerse de nuevo este recurso.</p> <p>Artículo 38.- Recursos a la providencia de apremio</p> <p>Contra la providencia de apremio sólo serán admisibles los siguientes motivos de oposición</p> <p>a) Extinción total de la deuda o prescripción del derecho a exigir el pago.</p> <p>b) Solicitud de aplazamiento, fraccionamiento o compensación en período voluntario y otras causas de suspensión del procedimiento de recaudación.</p> <p>c) Falta de notificación de la liquidación.</p> <p>d) Anulación de la liquidación.</p> <p>e) Error u omisión en el contenido de la providencia de apremio que impida la identificación de la persona deudora o de la deuda apremiada.</p> <p>Los recursos contra la providencia de apremio se dirigen al Tesorero o a la Tesorera municipal, quien deberá resolver, apoyándose en los informes correspondientes. La resolución del</p>
--	--

<p>kontuan hartuta. Errekurtsoaren ebazpena behar bezala jakinaraziko da.</p> <p>39.Artikulua.- Enbargo-diligentziaren aurkako errekurtsoak</p> <p>Enbargo-diligentziaren aurka, bakarrik ondoko kontrakotasun arrazoiak izango dira onargarriak:</p> <p>a) Zorra amaitzea, edo ordainketa exijitzeko eskubidea preskribitzea.</p> <p>b) Premiamenduzko probidentzia ez jakinaraztea.</p> <p>c) Foru arau honetan jasotako enbargo arauak ez betetzea.</p> <p>d) Zergabilketako prozedura etetea.</p> <p>e) Ordainketa geroratu edo zatikatzeko baimenduta egotea.</p> <p>Errekurtsoa Udal-diruzainari aurkeztuko zaio, eta hark dagozkion txostenak kontuan hartuta ebatzi beharko du.</p> <p>5.TITULUA: IKUSKATZEKO PROZEDURA</p> <p>40. Artikulua.- Zergen ikuskapena</p> <p>Zerga ikuskapena, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauaren eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zerga-ikuskapenaren Erregelamendua onartzen duen azaroaren 16ko 31/2010 Foru Dekretuan xedatutakoarekin bat garatuko da eta gainerako xedapen osagarriak.</p> <p>6.TITULUA:ZEHATZEKO PROZEDURA</p> <p>41. Artikulua.- Zehatzeko ahala</p> <p>Zehapen-prozedura Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauaren</p>	<p>recurso será notificada debidamente.</p> <p>Artículo 39.- Recursos contra la diligencia de embargo</p> <p>Contra la diligencia de embargo sólo serán admisibles los siguientes motivos de oposición:</p> <p>a) Extinción de la deuda o prescripción del derecho a exigir el pago.</p> <p>b) Falta de notificación de la Providencia de Apremio</p> <p>c) Incumplimiento de las normas reguladoras del embargo contenidas en la Norma Foral</p> <p>d) Suspensión del procedimiento de recaudación</p> <p>e) Tener concedido un aplazamiento o fraccionamiento de pago.</p> <p>El recurso se dirigirá al Tesorero a la Tesorera municipal, quien deberá resolver a la vista de los informes correspondientes.</p> <p>TITULO 5: PROCEDIMIENTO DE INSPECCIÓN</p> <p>Artículo 40.-Inspección tributaria</p> <p>La inspección tributaria se desarrollará de conformidad con lo establecido en la Norma Foral 2/2005, de 8 de marzo, General Tributaria del Territorio Histórico de Gipuzkoa, y en el Decreto Foral 31/2010, de 16 de noviembre, por el que se aprueba el Reglamento de Inspección Tributaria del Territorio de Gipuzkoa y demás disposiciones complementarias.</p> <p>TITULO 6: PROCEDIMIENTO SANCIONADOR</p> <p>Artículo 41.- Potestad sancionadora</p> <p>El procedimiento sancionador se desarrollará de conformidad con lo establecido en la Norma Foral 2/2005,</p>
---	--

eta, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zerga Arau-hauste eta Zehapenen Araubidearen Erregelamendua onartzen duen irailaren 26ko 42/2006 Foru Dekretuan xedatutakoarekin bat garatuko da eta gainerako xedapen osagarriak.

AZKEN XEDAPENA

Ordenantza hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera jarriko da indarrean, eta indarrean jarraituko du indargetzea edo aldatzea erabakitzen ez den bitartean

XEDAPEN DEROGATZAILEA

2004ko abenduaren 28an behin betiko onartutako Zergak eta Zuzenbide Publikoko beste diru-sarrera batzuk Biltzeko Ordenantza indargabetuta geratzen da.

de 8 de marzo, General Tributaria del Territorio Histórico de Gipuzkoa, y en el Decreto Foral 42/2006, de 26 de septiembre, por el que se aprueba el Reglamento del Régimen de Infracciones y Sanciones tributarias del Territorio Histórico de Gipuzkoa y demás disposiciones complementarias.

DISPOSICIÓN FINAL

La presente Ordenanza entra en vigor a partir del día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, y se mantendrá en vigor mientras no se acuerde su derogación o modificación.

DISPOSICIÓN DEROGATORIA

Queda derogada la Ordenanza de Recaudación de los Tributos y otros ingresos de Derecho Público, aprobada con carácter definitivo el 28 de diciembre de 2004.



IÑAKI OSTOLAZA ESNAL: Azalduko diguzu mesedez, Unai.

UNAI LARRAÑAGA URANGA: Bueno labur, labur zeren taldian artian hitz egindako gai bat da, esan ordenantza hau 2004 urtekoa zala, beraz ba bueno nahiko zaharkitua geratutakoa eta beharrezkoa zala ba gaur egungo araudira egokitzea, ba antzemandako ba arau eta prozedura hutsuneak asetzeko eta diru sarreren zerga-bilketa hobetzeko. Zerga bilketako ordenantza eguneratzez gai, kudeaketa eta ikuskapen ordenantza ere arautzea erabaki da, behin hasi ginela bat egiten eta esan ordenantza tramitatu aurretikan Zumaiko webgunean kontsulta publiko ein dala erakundeak eta herritarrak beraien ekarpenak egiteko eta ez dela inolako ekarpenik jaso. Ordenantzak egindako aldaketa nagusiyek hiru bloke dia zatikapenetan eta gerorapenetan aldaketak, hori bera erraztuz herritarrei, kreditu kobraezinak aitortzeko aplikatu beharreko irizpideak zehaztu eta administrazio bidean berrikustea eta errekursoak arautzea herritarrek ze aukera dituzten, berrikuspen bat eskatzen du.

IÑAKI OSTOLAZA ESNAL: Eskerrik asko Unai. Besterik gabe.

IKER MARDARAS ARRIETA: Kaixo, atsaldeon. Guk baiezko bozka emango dugu Unai esan duenez ogasun batzordean landu da eta hitz egin da. Eta bueno hau pixkat, bai ordenantza fiskalak eztabaitu genituen, gai hau atera zan guk ordenantzaren edo zerga eta tasen ordainketako malgutasun batzuk eta erraztasunak ezartzeko baditugu nolabaiteko proposamen batzuk eta hau leheendabizi beharrezkoa zen eguneratzea eta lehen urrats bat bezala ikusten dugu, hor teknikarien aldetikan hor bai atea dian nolabaiteko zailtasunak gauza horiek gure proposamen horiek lantzeko, urtean zehar ba bueno ogasun batzordean barnean landuko ditugu. Besterik ez, eskerrik asko.

IÑAKI OSTOLAZA ESNAL: Eskerrik asko Iker. Bozkatuko dugu aldeko bozka?

Aldeko botoak: 15 boto (9 EH BILDU eta 6 EAJ-PNV)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioak: 0

ERABAKIA

LEHENA.- Hasierako onarpena ematea Zergak eta Zuzenbide Publikoko beste sarrera batzuk kudeatu, bildu eta ikuskatzeko ordenantzari eta uztailaren 5eko 11/1989 Gipuzkoako Hazienda Lokalen Foru Arauaren 16. artikuluaaren arabera, udaleko iragarki taulan, Gipuzkoako Lurralde Historikoan hedapenik handienetakoa den egunkari batetan argitaratu eta GAO n argitaratu hogeita hamar egun balioduneko epean zehar.



BIGARRENA.- Jendaurreko erakusketako epealdia amaitu ondoren, Udal Korporazioak aurkeztu diren erreklamazioak ebatziz behin betiko erabakia hartuko du, eta erreklamaziorik aurkezten ez bada behin behinekoa zen erabakia behin betiko hartutzat ulertuko da.

HIRUGARRENA. Behin betiko erabakiaren testu bateratua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu beharko da, eta ez da indarrean jarriko argitaratzen ez den bitartean.

2.4.- ZUMAIAKO UDALAREN LAGUNTZA EKONOMIKO SOZIALEI BURUZKO ORDENANTZAREN ALDAKETARI HASIERAKO ONARPENA EMATEA BIDEZKO BADA.

HERRITARRAK BATZORDEAREN IRIZPENA, 2025KO URTARRILAREN 22KOA, ZUMAIAKO UDALAREN LAGUNTZA EKONOMIKO SOZIALEI BURUZKO ORDENANTZAREN ALDAKETARI HASIERAKO ONARPENA EMATEA.

DICTAMEN DE LA COMISIÓN INFORMATIVA DE HERRITARRAK DE 22 DE ENERO DE 2025 PARA LA APROBACIÓN DEL EXPEDIENTE DE LA MODIFICACIÓN DE LA ORDENANZA DE AYUDAS ECONÓMICAS MUNICIPALES DE CARÁCTER SOCIAL DEL AYUNTAMIENTO DE ZUMAIA.

AURREKARIAK

1.-Izaera sozialeko udal-dirulaguntzen egungo udal-erregelamendua 2013ko maiatzaren 29ko osoko bilkuran onartu zen, eta 2013ko uztailaren 23ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu.

2.- Zenbait aldaketa egiteko beharra ikusi da, gaur egun indarrean dagoen ordenantza hobetzeko eta osatzeko.

3.- Herritarrak elkartean 2025-01-22ko Informazio Batzordean, Zumaiako Udalaren gizarte-izaerako laguntza ekonomikoak emateko ordenantza arautzailearen aldaketari hasierako onespina emateko irizpena idazteko irizpideen berri eman da.

4.- Ordenantzan sartu beharreko aldatuen helburua honako hau da:

ANTECEDENTES

1.- El actual reglamento municipal de las ayudas económicas municipales de carácter social se aprobó en el pleno municipal en sesión de fecha 29 de mayo de 2013 y se publicó en el Boletín Oficial de Guipúzcoa de 23 de julio de 2013.

2.- Se ha visto la necesidad de realizar ciertas modificaciones para mejorar y completar la ordenanza actualmente en vigor.

3.- En la Comisión informativa de Herritarrak de 22-01-2025 se ha dado cuenta de los criterios para la redacción del dictamen para la aprobación inicial de la modificación de la ordenanza reguladora por las que se establece la concesión de las ayudas económicas municipales de carácter social del ayuntamiento de Zumaia.

4.- El objeto de las modificaciones a incluir en la Ordenanza son:



a) Udalerrian erroldatuta egondako denboraren atala aldatzea.
b) Etxebizitza mantentzeko eta kontserbatzeko atalean laguntzen kontzeptu berri bat sartzea.
c) Kontzeptu berri bat txertatzea gizarteratzeko eta laneratzeko laguntzen atalean.
d) Laguntza ekonomikoaren konputua kalkulatzeko kontuan hartu beharreko lege eta dekretu berria jasotzea.

e) Eskabidea egiteko eta dokumentazioa aurkezteko garaian kontuan hartu beharreko puntu berriak gehitzea.

5.- Aldaketak atal hauetan g auzatuko dira:

a) Onuradunak. Betekizunak. 3. Atala

b) Etxebizitza mantentzeko eta kontserbatzeko laguntzak. Puntu berri bat gehituko da.
c) Gizarteratzeko eta laneratzeko laguntzak. Idazketa berria eman zaie bi itemei.

d) Baliabide nahikoak. Lege eta dekretu berria zehaztea eta indarrean dagoen legea beti kontuan hartuko dela jasotzea.

e) Eskabidea. Item berriak ezarri dira.

d) Erantsi beharreko dokumentuak dokumentu berriak zehaztu dira.

a) Modificar el apartado del tiempo de empadronamiento en el municipio.

b) Incorporar un nuevo concepto de ayudas en el apartado para el mantenimiento y conservación de la vivienda.

c) Incorporar un nuevo concepto en el apartado de ayudas de apoyo a la inserción socio-laboral.

d) Recoger la nueva Ley y Decreto a tener en cuenta a la hora de calcular el computo de la ayuda económica.

e) Añadir nuevos puntos a tener en cuenta a la hora de realizar la solicitud y presentar la documentación.

5.- Las modificaciones se materializarán en los siguientes apartados:

a) Personas beneficiarias. Requisitos. Apartado 3.

b) Ayudas para el mantenimiento y conservación de la vivienda. Se añade un nuevo punto.

c) Ayudas de apoyo a la inserción socio-laboral. Se da nueva redacción a los dos ítems.

d) Recursos suficientes. Detallar la nueva ley y decreto y recoger que se tendrá en cuenta siempre la Ley en vigor.

e) Solicitud. Se establece nuevos ítems.

d) Documentos para adjuntar. Se detallan nuevos documentos.

IRIZPENA

Ondorioz, 2024ko irailaren 18ko Herritarrak batzordean bozketa egin da, honako emaitzekin:

Alde: 7 (EH BILDU 3, EAJ-PNVE 3, PSE 1)

Aurka: 0

Abstentzioa: 0

DICTAMEN

En consecuencia la Comisión informativa de Herritarrak de fecha 22 de enero de 2025 , tras la siguiente votación:

A favor: 7 (EH BILDU 3, EAJ-PNVE 3, PSE 1)

En contra: 0

Abstención: 0



ALDEKO irizpena eman da eta honako PROPOSAMEN hau udalbatzako osoko bilkuraren iritzipean jartzea erabaki du azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuz onartutako Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozeduraren Arautegiaren 135.3 artikulua xedatutakoaren arabera. Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 47 artikuluan araututakoari jarraituz, bertaratutako kideen gehiengo soilaren quorumarekin hartu beharko du erabakia. **PROPOSAMENA:**

acuerda ESTIMAR el presente dictamen de conformidad al artículo 135.3 del Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Corporaciones Locales aprobado por Real Decreto 2568/1986 de 28 de noviembre, y someterlo, si procede, a la consideración del Pleno de la Corporación que deberá adoptar el acuerdo con el quorum de la mayoría simple de los miembros presentes de conformidad con lo establecido en el art. 47 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases de Régimen Local, la siguiente

PROPUESTA:

LEHENA.- Zumaiako Udalaren gizarte-izaerako udal-dirulaguntzak ematea ezartzen duen ordenantzaren aldaketari hasierako onarpena ematea. Horren testu osoa I. eranskinean dago.

PRIMERO.- Aprobar inicialmente la modificación de la de la ordenanza reguladora por las que se establece la concesión de las ayudas económicas municipales de carácter social del ayuntamiento de Zumaia cuyo texto íntegro se adjunta como Anexo I.

BIGARRENGOA.- Ordenantzaren hasierako onarpenaren iragarkia GAO-n argitaratzea eta 30 egun naturaleko epean jendaurrean jartzea. Erreklamaziorik aurkeztu ez balitz, behin-behineko akordioa behin betikotzat hartua joko da.

SEGUNDO.- Publicar el anuncio de la aprobación inicial de la Ordenanza en el BOG y someterla a exposición pública durante 30 días naturales. En caso de que no se hubiera presentado ninguna reclamación, se entenderá definitivamente adoptando el acuerdo hasta entonces provisional.

Herritarrak batzordeko batzordeburua

Iñaki Ostolaza Esnal

IÑAKI OSTOLAZA ESNAL: Hemen egiten dana da ordenantzaren eguneraketa bat eta eiten duguna da gauza berri batzuk edo baldintza berri batzuk txertatu. Hala dio behintzat ordenantza sartu beharreko aldaketen helburuan honako hauek dia: Lendabizikua udalerrian errolatuta egondako denboraren atala aldatzea. Hemen aldaketa da, lehen beharrezkoa zen dirulaguntza hauek jasotzeko sei hilabetez errolatuta egotea eta orain jaso ahal izango dira soilik errolatuta. Beraz, epe bat ez da ipintzen, beste bat da etxebizitza mantentzeko eta kontserbatzeko atalean laguntzen kontzeptu berri bat sortzea. Azken finean hemen sartzten dena da atal berri bat ba gai horietan zorpetzeak ere aurkeztu ahal izatea eta horretarako ere diru laguntzak jasotzea. Kontzeptu



berri bat txertatzen da gizarteratzeko eta laneratzeko laguntzen atalean, eta hau da, garraioak eta ikasketak ere sartzen diala dirulaguntza hauetan, gero laguntza ekonomikoaren konputoa kalkulatzeko kontuan hartu beharreko lege eta dekretu berria jasotzea, Ordenantza hau onartu zenetikan legeak aldatu egin dira eta ordenantzak egin behar duena da lege berriari egokitu eta gero azkenekoz eskabidea egiteko eta dokumentazioa aurkezteko garaian kontuan hartu beharreko puntu berriak gehitzea. Orduan, hemen bai jartzen dugula lehen aipatu dudan bezala, Lanbidek eskatzen dituzten dokumentazioak bai Lanbidek Eusko Jjauraritzatikan eta bai Aldundiek eskatzen dituzten dokumentazioan berdina izatia guk eskatzen ditugunak. Eta aldaketa horiek dira txertatu direnak ordenantza berrira.

Zerbait komentatzeko izanez gero, bueno ba besterik gabe bozkatu eingo dugu. Aldeko bozka?

Aldeko botoak: 15 boto (9 EH BILDU eta 6 EAJ-PNV)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioak: 0

ERABAKIA

LEHENA.- Zumaiako Udalaren gizarte-izaerako udal-dirulaguntzak ematea ezartzen duen ordenantzaren aldaketari hasierako onarpena ematea. Horren testu osoa I. eranskinean dago.

BIGARRENGOA.- Ordenantzaren hasierako onarpenaren iragarkia GAOn argitaratzea eta 30 egun naturaleko epean jendaurrean jartzea. Erreklamaziorik aurkeztu ez balitz, behin-behineko akordioa behin betikotzat hartua joko da.

3.- PROPOSAMENA

3.1.- ZUMAIAKO UDALAREN KIROL-INSTALAZIOETAN HAINBAT ZERBITZU EMATEKO KONTRATAZIO ESPEDIENTEAN AURKEZTUTAKO PROPOSAMENEN HURRENKERA ONARTZEA, BIDEZKO BADA.

Lehendabizi bozkatu dute proposamena aurkeztu edo ez.

Aldeko botoak: 15 boto (9 EH BILDU eta 6 EAJ-PNV)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioak: 0

Beraz, proposamenak aurkeztu eta bozkatuko da.



ZUMAIAKO UDALAREN KIROL-INSTALAZIOETAN HAINBAT ZERBITZU EMATEKO KONTRATAZIO ESPEDIENTEAN AURKEZTUTAKO PROPOSAMENEN HURRENKERA ONARTZEKO ERABAKI PROPOSAMENA

PROPUESTA DE ACUERDO PARA LA APROBACIÓN DE LA CLASIFICACIÓN DE LAS PROPOSICIONES PRESENTADAS EN EL EXPEDIENTE DE CONTRATACIÓN DE SERVICIOS VARIOS EN LAS INSTALACIONES DEPORTIVAS MUNICIPALES DE ZUMAIÁ.

AURREKARIAK

LEHENA.- Ikusita Kiroletako sailak egin duen memoria Zumaia udalaren kirol-instalazioetan hainbat zerbitzu kontratatze beharra adierazten duena.

BIGARRENA.- Adjudikatu nahi den kontratuaren ezaugarriak ikusita:

ANTECEDENTES DE HECHO

PRIMERO. A la vista de la memoria justificativa del Departamento de Deportes sobre la necesidad de contratar servicios varios en las instalaciones deportivas municipales de Zumaia.

SEGUNDO. A la vista de las características del contrato que se pretende adjudicar:

Kontratu-mota: ZERBITZU-KONTRATUA Tipo de contrato: CONTRATO DE SERVICIOS	
Kontratuaren xedea: Zumaia udalaren kirol-instalazioetan hainbat zerbitzu ematea Objeto del contrato: Prestación de servicios varios en las instalaciones deportivas municipales de Zumaia.	
Kontratazio-prozedura: IREKIA Procedimiento de contratación: ABIERTO	Izapidetze-mota: ARRUNTA Tipo de Tramitación: ORDINARIA
Erregulazio harmonizatuko kontratua: BAI Contrato sujeto a regulación armonizada: Sí	
CPV kodea: 92600000-7 Kirol zerbitzuak Código CPV: 92600000-7 Servicios deportivos	
Kontratuaren balio zenbatetsia: 2.846.125,28 € Valor estimado del contrato: 2.846.125,28 €	
Urteko gehieneko aurrekontua BEZ gabe: 711.531,32€ Presupuesto máximo anual IVA excluido: 711.531,32€	BEZ % 21: 149.421,58€ IVA 21: 149.421,58€
Urteko gehieneko aurrekontua BEZ barne: 860.952,89€ Presupuesto máximo anual IVA incluido: 860.952,89€	

ESKUTIKO 01000000-0000-0000-0000-000000000000



Lizitazioaren urteko oinarrizko aurrekontua (lizitatuzaileak eskaini beharreko zerbitzu hauek egiteko aurreikusitako kostuak batu dira):

El presupuesto base de licitación anual (se ha calculado en base a la suma de los costes estimados para la realización del máximo de horas anuales previstos de los siguientes servicios a ofrecer por la licitadora):

ZERBITZUA SERVICIO	ORDUAK HORAS	ORDUKO PREZIOA PRECIO HORA	URTEKO AURREKONTUA PRESUPUESTO ANUAL	BEZ IVA	URTEKO AURREKONTUA PRESUPUESTO ANUAL
SOROSPENA SOCORRISMO	4.378	33,37	146.090,92€	30.679,09€	176.770,02€
JARDUERAK ACTIVIDADES	4.618	34,33	158.555,39€	33.296,63€	191.852,02€
HARRERA RECEPCIÓN	3.311	30,66	101.520,37€	21.319,28€	122.839,65€
GARBIKETA LIMPIEZA	4.515	28,73	129.735,58€	27.244,47€	156.980,05€
MANTENUA MANTENIMIENTO	3.184	35,96	114.505,78€	24.046,21€	138.551,99€
ADMINISTRAZIOA ADMINISTRACIÓN	1.592	36,23	57.674,11€	12.111,56€	69.785,67€
KOORDINAZIOA COORDINACIÓN	100	34,49	3.449,17	724,33€	4.173,49€
GUZTIRA/TOTAL			711.531,32€	149.421,58€	860.952,89€

PREZIOA ZEHAZTEKO MODUA: Zerbitzu ezberdinen unitate prezioak (zerbitzu orduko). Egindako kalkulurako aplikatu beharreko hitzarmen kolektiboa 2023ko abuztuaren 13ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (157 zenbakia) argitaratutako "Gipuzkoako Titulartasun Publikoko Kirol Instalaziotako Hitzarmen Kolektiboa" da, eta BPXPORT S.L. enpresak 2019ko apirilaren 2an sinatutako zentruko hitzarmen.

SISTEMA DE DETERMINACIÓN DEL PRECIO: Precios unitarios de cada servicio (por hora de servicio). El Convenio Colectivo de aplicación para el cálculo efectuado es el "Convenio Colectivo de Instalaciones deportivas de Titularidad Pública", publicado en el Boletín Oficial de Gipuzkoa (nº157) el 13 de agosto del 2023 y el pacto de empresa firmado por BPXport S.L. el 2 de abril del 2019.

Unitate-prezioak gehienez (orduko prezioak). Lizitatuzaileek beherantz hobetu ahal izango dituzte:

Precios unitarios máximos (Precios por hora). Podrán ser mejorados a la baja por las licitadoras:

SOROSLE ZERBITZUA SERVICIO DE SOCORRISMO	ORDUKO PREZIOA PRECIO HORA
Zuzeneko gastuak (Pertsonal gastuak) Costes directos (gastos personal)	30,34€
Zeharkako gastuak (%6) Costes indirectos (6%)	1,82€
Mozkin Industrial (4%) Beneficio industrial (4%)	1,21€
Prezioa orduko (BEZa gabe)/Precio hora (sin IVA)	33,37€
BEZ/IVA (%21)	7,01€
PREZIOA ORDUKO GUZTIRA/PRECIO HORA TOTAL	40,38€



KIROL JARDUERAK ACTIVIDADES DEPORTIVAS	ORDUKO PREZIOA PRECIO HORA
Zuzeneko gastuak (Pertsonal gastuak) Costes directos (gastos personal)	31,21€
Zeharkako gastuak (%6) Costes indirectos (6%)	1,87€
Mozkin Industrialia (%4) Beneficio industrial (4%)	1,25€
Prezioa orduko (BEZa gabe)/Precio hora (sin IVA)	34,33€
BEZ/IVA (%21)	7,21€
PREZIOA ORDUKO GUZTIRA/PRECIO HORA TOTAL	41,54€

HARRERA ZERBITZUA SERVICIO DE RECEPCIÓN	ORDUKO PREZIOA PRECIO HORA
Zuzeneko gastuak (Pertsonal gastuak) Costes directos (Gastos personal)	27,87€
Zeharkako gastuak (%6) Costes indirectos (6%)	1,67€
Mozkin Industrialia (%4) Beneficio industrial (4%)	1,11€
Prezioa orduko (BEZa gabe)/Precio hora (sin IVA)	30,66€
BEZ/IVA (%21)	6,44€
PREZIOA ORDUKO GUZTIRA/PRECIO HORA TOTAL	37,10€

GARBIKETA ZERBITZUA SERVICIO DE LIMPIEZA	ORDUKO PREZIOA PRECIO HORA
Zuzeneko gastuak (Pertsonal gastuak) Costes directos (Gastos personal)	26,12€
Zeharkako gastuak (%6) Costes indirectos (6%)	1,57€
Mozkin Industrialia (%4) Beneficio industrial (4%)	1,04€
Prezioa orduko (BEZa gabe)/Precio hora (sin IVA)	28,73€
BEZ/IVA (%21)	6,03€
PREZIOA ORDUKO GUZTIRA/PRECIO HORA TOTAL	34,77€

MANTENU ZERBITZUA SERVICIO DE MANTENIMIENTO	ORDUKO PREZIOA PRECIO HORA
Zuzeneko gastuak (Pertsonal gastuak) Costes directos (Gastos personal)	32,69€
Zeharkako gastuak (%6) Costes indirectos (6%)	1,96€
Mozkin Industrialia (%4) Beneficio industrial (4%)	1,31€
Prezioa orduko (BEZa gabe)/Precio hora (sin IVA)	35,96€
BEZ/IVA (%21)	7,55€
PREZIOA ORDUKO GUZTIRA/PRECIO HORA TOTAL	43,52€



ADMINISTRARI ZERBITZUA SERVICIO DE ADMINISTRACIÓN	ORDUKO PREZIOA PRECIO HORA
Zuzeneko gastuak (Pertsonal gastuak) Costes directos (Gastos personal)	32,93€
Zeharkako gastuak (%6) Costes indirectos (6%)	1,98€
Mozkin Industrialak (%4) Beneficio industrial (4%)	1,32€
Prezioa orduko (BEZa gabe)/Precio hora (sin IVA)	36,23€
BEZ/IVA (%21)	7,61€
PREZIOA ORDUKO GUZTIRA/PRECIO HORA TOTAL	43,84€

KOORDINAZIO ZERBITZUA SERVICIO DE COORDINACIÓN	ORDUKO PREZIOA PRECIO HORA
Zuzeneko gastuak (Pertsonal gastuak) Costes directos (Gastos personal)	31,36€
Zeharkako gastuak (%6) Costes indirectos (6%)	1,88€
Mozkin Industrialak (%4) Beneficio industrial (4%)	1,25€
Prezioa orduko (BEZa gabe)/Precio hora (sin IVA)	34,49€
BEZ/IVA (%21)	7,24€
PREZIOA ORDUKO GUZTIRA/PRECIO HORA TOTAL	41,73

Kontratuaren iraupena: 2 URTE Duración del contrato: 2 AÑO	Luzapena: 2 URTE Prórroga: 2 AÑO
---	-------------------------------------

HIRUGARRENA.- Ikusita espedientearen dauden gainontzeko agiriak:

TERCERO. Vistos el resto de documentos que obran en el expediente:

- Justifikazio memoria eta baliabide nahikorik ez dagoelako txostena.
- Loteetan ez zatitzeko txostena.
- Kontu-hartzaitzako txostena, adierazten duena aurrekontuko baliabideekiko zenbatekoa den kontratazioak dakarren gastuaren ehunekoa.
- Idazkaritzako txostena, jarraitu beharreko prozedurari buruzkoa.
- Baldintza administratiboen agiria.
- Baldintza teknikoen agiria.
- Eranskinak
- Euskara saileko txostena.
- Berdintasun saileko txostena.
- Kontu hartzailezako txostena, dagokion kreditua dagoela ziurtatzen duena.
- 2024ko urriaren 28ko idazkariaren erabaki proposamena kontratazio espedientea onartzeko.
- Memoria justificativa e informe de insuficiencia de medios.
- Informe sobre la no división en lotes.
- Informe de Intervención sobre el porcentaje que supone la contratación en relación con los recursos del presupuesto.
- Informe de Secretaría sobre el procedimiento a seguir.
- Pliego de cláusulas administrativas particulares.
- Pliego de prescripciones técnicas.
- Anexos.
- Informe del departamento de Euskara.
- Informe del departamento de Igualdad.
- Informe de Intervención sobre la existencia del crédito correspondiente.
- Propuesta de Acuerdo del secretario de fecha 28 de octubre de 2024 para la aprobación del expediente de contratación.



- Kontratazio espedientea onartzeko 2024ko urriaren 31ko Zumaiako Udaleko Osoko Bilkuraren erabakia.
- Litzitazioaren iragarkia kontratugilearen eta EBAOn.
- "A" artxiboak irekitzeko kontratazio-mahaiaren akta.
- "B" artxiboak irekitzeko kontratazio-mahaiaren akta.
- Balorazio teknikoaren txostena
- "C" artxiboak irekitzeko, eskaintzak sailkatzeko eta adjudikazio proposamena egiteko kontratazio-mahaiaren akta .
- Acuerdo del Pleno del Ayuntamiento de fecha 31 de octubre de 2024 de aprobación del expediente de contratación.
- Anuncio de licitación en el perfil del contratante y en el DOUE.
- Acta de la mesa de contratación de apertura de los archivos «A».
- Acta de la mesa de contratación de apertura de archivos «B».
- Informe de valoración técnica.
- Acta de la mesa de contratación de apertura de archivos «C», de clasificación de ofertas y propuesta de adjudicación.

LAUGARRENA. Kontuan hartuta sailkapen onena duen lizitatuzaileak nahitaezko dokumentazioa aurkeztu ondoren, adjudikazioa bost egun balioduneko epean egin behar dela, eta presako osoko bilkurarako deialdirik egin behar ez izateko, proposatzen da osoko bilkurak Alkatetzaren esku uztea kontratuaren adjudikazioa, eraginkortasun eta arintasun administratibo handiagoa lortze aldera.

Agiriak aztertuta eta Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legeak, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB Zuzentarauak Espainiako ordenamendu juridikora ekartzen dituenak, 150. artikuluan eta Bigarren Xedapen Gehigarrian xedatutakoaren arabera, Osoko bilkurari dagokio eskaintzen sailkapena onartzea kontratazio mahaiak egindako proposamenaren arabera.

Aurreko guztia kontuan hartuta eta Toki Erakundeen Antolaketa, Funtzionamendua eta Araubide Juridikoaren Araudia onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 175. artikulua ezarritakoarekin bat etorrira, behean sinatzen duenak honako ERABAKI-proposamen hau igortzen du:

CUARTO. Teniendo en cuenta que una vez presentada la documentación preceptiva por la licitadora mejor clasificada, la adjudicación debe efectuarse en el plazo de cinco días hábiles, y a fin de no tener que realizar una convocatoria de Pleno urgente, se propone que el Pleno delegue en la Alcaldía la adjudicación del contrato, a efectos de mayor operatividad y agilidad administrativa.

Examinada la documentación que la acompaña y de conformidad con lo establecido en el artículo 150 y la Disposición Adicional Segunda de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público, por la que se transponen al ordenamiento jurídico español las Directivas del Parlamento Europeo y del Consejo 2014/23/UE y 2014/24/UE, de 26 de febrero de 2014, corresponde al Pleno, como órgano de contratación, aprobar la clasificación de ofertas propuesta por la mesa de contratación.

Por cuanto antecede, y de conformidad con lo establecido en el artículo 175 del Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Entidades Locales, aprobado por Real Decreto 2568/1986, de 28 de noviembre, el que suscribe eleva la siguiente propuesta de ACUERDO:



ERABAKI PROPOSAMENA

PROPUESTA DE ACUERDO

LEHENA.- Lizitatzailleek aurkeztutako eskaintzak sailkatzea, kontratazio mahaiak egindako proposamenaren arabera eta handitik txikirako ondorengo hurrenkeran:

PRIMERO. Aprobar la clasificación de las proposiciones presentadas por los/as licitadores/as, atendiendo la propuesta llevada a cabo por la Mesa de Contratación, de conformidad con el siguiente orden decreciente:

1. ATHLON KUDEAKETA S.L.: 88 puntu.

1. ATHLON KUDEAKETA S.L.: 88 puntos.

BIGARRENA. Zerbitzu eskudunek eskaria egitea ATHLON KUDEAKETA S.L. lizitatzailari, eskaintza hoberena aurkeztu duenari (eskaintza aurkeztu duen lizitatzaille bakarra da), hamar laneguneko epean Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, 140.1 artikuluan aipatzen dituen aurretiazko baldintzak betetzen dituela justifikatzen duten agiriak aurkez ditzan; horrez gain, kontratua gauzatzeko gorde edo atxiki beharreko bitartekoak egiaz eskura dituela erakutsi beharko du agiri bidez, 76.2 artikuluaaren arabera; eta behin betiko bermea eratu duela ere erakutsi beharko du.

SEGUNDO. Que los servicios competentes requieran a ATHLON KUDEAKETA S.L., licitadora que ha presentado la mejor oferta (única licitadora presentada), para que, dentro del plazo de diez días hábiles, presente la documentación justificativa del cumplimiento de los requisitos previos a que hace referencia el artículo 140.1 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público, así como de disponer efectivamente de los medios que se hubiese comprometido a dedicar o adscribir a la ejecución del contrato conforme al artículo 76.2 y de haber constituido la garantía definitiva que sea procedente.

Era berean, polizaren kopia aurkeztu beharko du, bai eta erantzukizun zibileko poliza baten kontratazioaren primaren ordainagiria ere, 600.000 €-ko gutxieneko estaldura duena, zuzenean instalazioek sor ditzaketan istripu, kalte eta galerak edota zerbitzua ematean egiten diren lanen ondorioz sor daitezkeenak estaltzeko.

Del mismo modo, deberá aportar copia de la póliza y justificante pago de la prima de la contratación de una póliza de responsabilidad civil con una cobertura mínima de 600.000,00 € de todos los accidentes, daños y perjuicios que puedan ocurrir, ocasionados directamente por las instalaciones o por los trabajos que se realicen como consecuencia del a prestación del servicio.

Azkenik, enpresak 50 langile baino gehiago baldin baditu, Berdintasun Plana aurkeztu beharko du.

Por último, si la empresa tiene más de 50 personas empleadas, deberá presentar el Plan de Igualdad de la empresa.

HIRUGARRENA.- Kontratua adjudikatzeko eskumena alkateari eskuordetzea, proposatutako lizitatzailleak nahitaezko dokumentazioa aurkeztu eta Idazkaritzak proposamen-txostena egin ondoren.

TERCERO.- Delegar en el Alcalde la competencia para la adjudicación del contrato, una vez que la licitadora propuesta presente la documentación preceptiva y se emita Informe-propuesta por Secretaría.

IDAZKARIA/EL SECRETARIO

Foruen plaza 1 • Tel.: 943 865025 • Faxa: 943 862456 • 20750 ZUMAIA
www.zumaia.eus • e-mail: udala@zumaia.eus

ESKUbdff0303-38bd-49f5-a975-8efc86f51cb1



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2024IKIE0004-Erabaki proposamena hurrenkera/Propuesta de acuerdo.

Digitalki sinatua:



Zumaiako Udala

Alex Marañon Muñoz

Idazkaria

Data: 2025/01/23 15:35:51



IÑAKI OSTOLAZA ESNAL: Proposamena, hontan datza, lehendabizikoa, lizitatuzaileek aurkeztutako eskaintzak sailkatzea kontratazio mahaiak egindako proposamenaren arabera eta handitik txikirako ondorengo hurrenkeran. Bat aurkeztu danez, bat da izendatzen dana, Athlon Kudeaketa, S.L. 88 punturekin. Bigarrenez, zerbitzu eskudunek eskaria egitea Athlon Kudeaketa lizitatuzaileari eskaintza hoberena aurkeztu duenari. Eskaintza aurkeztu duen lizitatuzaile bakarra da 10 laneguneko epean aurretiazko baldintzak betetzen dituela justifikatzen dituen agiriak aurkez ditzan. Horrez gain, kontratua gauzatzeko gorde edo atxiki beharreko bitartekoak egiaz eskura dituela erakutsi beharko du agiri bidez, eta behin betiko bermea eratu dutela duela ere erakutsi beharko du. Era berean, polizaren kopia aurkeztu beharko du, bai eta erantzukizun zibileko poliza baten kontratazioaren primaren ordainagiria ere, 600.000 euroko gutxieneko estaldura duena. Zuzenean instalazioek sor ditzaketen istripu kalte eta galerak edota zerbitzua ematea egiten diren lanen ondorioz sor daitezkeenak estaltzeko. Azkenik, enpresak 50 langile baino gehiago baldin baditu, berdintasun plana aurkeztu beharko du. Eta hirugarrenez kontratua adjudikatzeko eskumena alkateari eskuordetzea. Proposatutako lizitatuzaileak nahitaezko dokumentazioa aurkeztu eta idazkaritzak proposamen txostena egin ondoren, nik sinatzeko. Besterik ez baldin bada, bozkatu eingo dugu. Aldeko bozka?

Aldeko botoak: 15 boto (9 EH BILDU eta 6 EAJ-PNV)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioak: 0

ERABAKIA

LEHENA.- Lizitatuzaileek aurkeztutako eskaintzak sailkatzea, kontratazio mahaiak egindako proposamenaren arabera eta handitik txikirako ondorengo hurrenkeran:

1. ATHLON KUDEAKETA S.L.: 88 puntu.

BIGARRENA. Zerbitzu eskudunek eskaria egitea ATHLON KUDEAKETA S.L. lizitatuzaileari, eskaintza hoberena aurkeztu duenari (eskaintza aurkeztu duen lizitatuzaile bakarra da), hamar laneguneko epean Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, 140.1 artikuluan aipatzen dituen aurretiazko baldintzak betetzen dituela justifikatzen duten agiriak aurkez ditzan; horrez gain, kontratua gauzatzeko gorde edo atxiki beharreko bitartekoak egiaz eskura dituela erakutsi beharko du agiri bidez, 76.2 artikulua arabera; eta behin betiko bermea eratu duela ere erakutsi beharko du.

Era berean, polizaren kopia aurkeztu beharko du, bai eta erantzukizun zibileko poliza baten kontratazioaren primaren ordainagiria ere, 600.000 €-ko gutxieneko estaldura duena, zuzenean instalazioek sor ditzaketen istripu, kalte



eta galerak edota zerbitzua ematean egiten diren lanen ondorioz sor daitezkeenak estaltzeko.

Azkenik, enpresak 50 langile baino gehiago baldin baditu, Berdintasun Plana aurkeztu beharko du.

HIRUGARRENA.- Kontratua adjudikatzeko eskumena alkateari eskuordetzea, proposatutako lizitazaileak nahitaezko dokumentazioa aurkeztu eta Idazkaritzak proposamen-txostena egin ondoren.

4.- UDALBATZAKO ORGANOEEN KONTROLA ETA FISKALIZAZIOA.

4.1.- UDALAREN 2024KO 26., 27., 28. ETA 29. ERREPARO ORRIEN ETA HAUEN ALKATE DEKRETUEN BERRI EMATEA.

KONTU-HARTZAILEAREN ERREPARO ORRIA (26/2024):

AURREKARIAK:

Kontu-hartzaileak, Zumaia Udaleko kontratuen egoeraz interesaturik honako kontratu hauek epez kanpo aurkitu ditu fakturei oniritzia ematerakoan:

KONTRATUEN ERANSKINA

Enpresa	Kontratututako zerbitzua	Data Kontratua	Iraupena	data amaitu
Eulen	Eguneko zentroa	01/02/2009	1 + 1	01/02/2011
Eulen	Etxez etxeko laguntza	01/04/2022	2	2024/04/01
UTE LV ZUMAIA	Kale garbiketa	11/01/2016	1+1	11/01/2018
Arazi IKT SL	Algorri kudeaketa	20/04/2016	1+1	20/04/2018
Kastore Gest S.L.	Hainbat zerbitzu	05/11/2009	2+1	05/11/2012
Serkonten	Edukiontzi higienikoak	01/11/2016	1	01/11/2017
Erreka	Ate automatikoen mantenua	01/10/2016		01/10/2017
Kalexka elkarte	Kale heziketa/esku hartze programa	01/07/2017	2+2	01/07/2021
BXPOR S.L.	Kirodegiko zerbitzua	12/09/2012	2+2	12/09/2016
GEZE IBERIA S.R.L.U.	Ate automatikoa mantenua	23/07/2019	1	23/07/2020
TECNOGYM TRADING S.A	Gimnasioko makinariaren mantenua			

Aplikagarria zaizkion arauak:

1) 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena + Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.

2) 21/2003 FORU ARAUA, abenduaren 19koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoa.



3) 2/2012 Lege Organikoa, apirilaren 27koa, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzkoa.

4) 32/2018 Foru Dekretua, abenduaren 27koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Tokiko Sektore Publikoko entitateen barne kontrolaren araubide juridikoa erregulatzen duena eta Gipuzkoako toki entitateen kontabilitatearen arau esparrua ezartzen duen abenduaren 15eko 86/2015 Foru Dekretua aldatzen duena.

5) RESOLUCIÓN de 2 de junio de 2008, de la Intervención General de la Administración del Estado, por la que se publica el Acuerdo del Consejo de Ministros de 30 de mayo de 2008, por el que se da aplicación a la previsión de los artículos 152 y 147 de la Ley General Presupuestaria, respecto al ejercicio de la función interventora en régimen de requisitos básicos.

6) Resolución de 25 de julio de 2018, de la Intervención General de la Administración del Estado, por la que se publica el Acuerdo del Consejo de Ministros de 20 de julio de 2018, por el que se da aplicación a la previsión de los artículos 152 y 147 de la Ley General Presupuestaria, respecto al ejercicio de la función interventora en régimen de requisitos básicos en el ámbito de los contratos del sector público y encargos a medios propios.

Zehaztasunak:

21/2003 FORU ARAUA, abenduaren 19koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoa.

" 67. artikulua. Legezkontasunaren kontrola."

1.- Kontu-hartze-eginkizunaren helburua, haren legezkontasun kontrolaren ikuspegitik, toki erakundeen eta beraien organismo autonomoen egintza guztiak, beti ere haiek eskubide eta betebeharrak ekonomikoak edo gastuak aintzatestea eta likidatzea eragiten dutenean, beraietatik sortzen diren sarrera eta ordainketak eta administratutako ondasun publikoen bilketa, inbertsio eta, oro har, aplikazioa fiskalizatzea da, kudeaketa kasuan kasuko aplikatu beharreko xedapenen arabera izan dadin.

2.- Eginkizun horren erabilerak honako hauek eskuhartuko ditu:

a) Eskubideak edo betebeharrak ekonomikoak sortzea edo baloreen fondoak mugitzea eragin dezaketen egintza, agiri edo espediente guztien kontu-hartze kritikoa edo aurrekontuakoa.

b) **Ordainketa-aginduaren erazko kontu-hartzea.**

c) **Ordainketaren kontu-hartze materiala.** Udalbatzaren erabaki batengatik kontrol hori laginketa bidez baimentzen denean izan ezik, kontu-hartzailearen sinadura foru arau honetako 57. artikuluan aurreikusitako fondoaren erabilpenerako mankomunatuak erantsiko zaie.

"70. artikulua. Erreparoak."



1.- Kontu-hartze-eginkizuna erabiltzean, organo kontu-hartzailea aztergai diren egintzen, agirien edo espedienteen edukiarekin edo itxurarekin ados ez badago, bere erreparoa idatziz azaldu beharko ditu erabakia edo ebazpena hartu baino lehen.

3.- Erreparoa gastuen erabilpenari, betebeharren aintzatespenari edo ordainketa-aginduari badagokio, espedientearen izapidetzea etengo da harik eta hura ebazten den arte, beti ere honelakoetan gertatzen denean:

c) Espedienteen **funtsezko beharkizun** edo izapideak alde batetara utzi direnean.

4.- Erreparoa ukitzen duen organoa berarekin ados ez dagoenean, udalburuak ebatzi beharko du eztabaida, eta beraren ebazpena betearazi beharrekoa izango da. Ahalmen hau ezin da eskuordetu.

27/2013 Legea, abenduaren 27koa, toki-administrazioaren arrazionalizazio eta iraunkortasunari buruzkoa.

Bigarren artikuluan Martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bateratua aldatzen du eta honela geratu da aldatuta martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Toki-ogasunak arautzen dituen Legearen testu bateratua:

"218. artikulua. Desadostasunen ebazpenari buruzko txostenak."

1. Kontu-hartzailetzako organoak txostena helaraziko dio osoko bilkurari, adierazitako eragozpenei dagokienez toki-entitateko lehendakariak hartutako ebazpen guztien inguruan; halaber, diru-sarreraren arloan antzemandako arazo nagusien laburpena bidaliko dio. Txosten horrek funtzio ikuskatzaileari dagozkion alderdiei eta betekizunei bakarrik erantzungo die, ikuskatutako jarduketaren aukera edo komenigarritasunari dagozkion gaiak gaineratu gabe.

Atal honetan jasotzen denak puntu independente bat osatuko du dagokion osoko bilkurako gai-zerrendan.

Korporazioko lehendakariak jarduketaren txosten justifikatzailea aurkeztu ahal izango du osoko bilkuran.

2. Aurrekoari kalterik egin gabe, eta desadostasunak daudenean, toki-entitateko lehendakariak kontrol-organo eskudunari aurkeztu ahal izango dio bere ebazpena, finantza-tutoretza esleitu duen administrazioaren gaia delako, hain zuzen.

3. Kontu-hartzailetzako organoak txosten bat helaraziko dio urtero Kontu Auzitegiari, toki-entitateko lehendakariak eta korporazioaren osoko bilkurak adierazitako eragozpenen kontra hartutako ebazpen eta hitzarmen guztien inguruan; halaber, diru-sarreraren arloan antzemandako arazo nagusien laburpena bidaliko dio. Dokumentazio horrez gain, tokiko korporazioaren justifikazio-txostenak aurkeztu beharko dira, hala badagokio.»

32/2018 Foru Dekretua, abenduaren 27koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Tokiko Sektore Publikoko entitateen barne kontrolaren araubide juridikoa erregulatzen duena

12. artikulua. Eragozpenak.

1.Organo kontu-hartzaileak adierazten badu ez dagoela ados aztertutako egintza, agiri edo espedienteen mamiarekin edo formarekin, bere eragozpenak idatziz



azaldu beharko ditu. Eragozpen horiek irizpidea finkatzen duten arauetan oinarritutako arrazoibideen bitartez motibatuta behar dira, eta espedientearen jasotako oztopo guztiak barnean hartuko dituzte.

2. Baldin eta eragozpenak gastuen onespenerari edo xedapenerari, obligazioen onarpenari edo ordainketen aginduari eragiten badiu, espedientearen izapidea etengo da harik eta hura ebatzi arte, betiere 21/2003 Foru Aruaren 70.3 artikuluan jasotako kasuetan gertatzen denean.

3. Aipatutako 70.3 artikuluan c) apartatua jasotako kasuan, bidezkoa izango da eragozpen etenarazle bat azaltzea, honelakoak gertatuz gero:

- a) Gastua onartzeko eskumenik ez duen organo bati proposatzen zaionean.
- b) Obligazioaren onarpenaren frogagiritan irregulartasun larriak sumatzen direnean edo jasotzailearen eskubidea behar adina egiaztatzen ez denean.
- c) Baldintzak edo izapideak ez betetzearen ondorioz egintza deuseztatuta gelditu daitekeenean edo, kudeaketa administratiboarekin aurrera jarraituz gero, toki entitateko diruzaintzari edo hirugarrenei diru galera ekarri ahal zaienean.

Korporazioko osoko bilkurak beste baldintza edo izapide osagarri batzuk onartu ahal izango ditu, organo kontu-hartzaileak txostena egin ondoren, eta haiek ere funtsezkotzat hartuko dira.

4. Eragozpena jasotzen duen organoak hura onartzen duenean, bertan jasotako akatsak zuzendu beharko ditu eta jarduketak berriro bidali beharko dizkio organo kontu-hartzaileari hamabost eguneko epean. Eragozpena jasotzen duen organoak hura onartzen ez duenean, aldiz, foru dekretu honetako 15. artikuluan xedatutako prozedura hasiko du.

5. Baldin eta espedientearen akatsak gertatzen badira funtsezkotzat ez diren baldintzak edo izapideak eta 21/2003 Foru Aruaren 70.3 artikuluan jasotako gainerakoak ez betetzearen ondorioz, Kontu-hartzaileak aldeko txostena egin ahal izango du, baina, egintza eraginkorra izango bada, akats horiek espedientearen onartu aurretik zuzendu beharko dira. Organo kudeatzaileak akats horiek zuzendu izanaren frogagiriak bidaliko dizkio organo kontu-hartzaileari. Baldin eta organo kudeatzaileak espedientearen aurrera jarraitzeko ezarritako baldintzak betetzen ez baditu, eragozpena azaldutzat hartuko da, eta horrek ez du eragotziko, egoki deritzen kasuetan, foru dekretu honetako 15. artikuluan jasotako prozedura hastea. Organo kontu-hartzaileak Herri Kontuen Euskal Epaitegira bidaliko ditu apartatu honetan jasotakoaren arabera azaldutako eragozpenen aurka hartzen diren ebazpen eta erabakiak.

b) Indarrean ez dauden kontratu batzuen fakturak iritsi dira eta honako hauek dira:

FAKTURAREN DATA	FAKTURA ZENBAKIA	INTERESATUA	KONTZEPTUA	GUZTIZKOA BEZA BARNE
2024/12/2	24A0012	UTE LV ZUMAIA	AZAROA Zumaiako udalerrian eginiko kale-garbiketa zerbitzua	32.978,69
11/30/2024	3974069	EULEN SERVICIOS SOCIOSANITARIOS	URRIA - Eguneko zentroa	39.042,73
